

Esp. Zkia.- z/g
E.E.- 2024-00198**233/2024 ALKATETZA DEKRETUA:**

Larrabetzuko Udaletxean, 2024ko lorailaren 6an.

OINARRIA: 2024ko zezeilaren 2an BAOean 2024 ekitaldirako Larrabetzuko Udal Aurrekontu Orokorraren behin betiko onarpena argitaratu egin zen. Horretan Euskal Fondoaren, G-48772487 IFK zenbakidunaren, nazioarteko kooperaziorako diru-laguntza zuzen nominatibo bat jasotzen da aurrekontuaren aurrekontu partida konkretuan (231-48100).

Honako proiektu hau finantzatzeko asmoa dago: "Saharako Garraio eta Energia Ministerioko zuzendaritza nagusien lana indartzea".

OINARRIA: 2024ko lorailaren 6ko datarekin udal kontu-hartzaileak txostena egin zuen.

OINARRIA: Honako honeetan xedatutakoa: Diru-laguntzen 38/2003 Lege orokorraren 22.2.a) artikuluan, 887/2006 Errege Dekretuak onetsitako Diru-laguntzen Araudi Orokorraren 65. Artikuluan.

Honen bidez, Tokiko Araubidearen Oinarriak arautzen dauzan apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21. artikuluan ezarritakoaren arabera, HAU EBATZI DOT:

LEHENENGOA.- Euskal Fondoa erakundeari(IFK: G-48772487); 16.000,00 euroko diru-laguntzea emongo jako, 231-48100 aurrekontuaren aurrekontu-partidea zordunduta (936,45 euro kide moduan eta 15.063,55 euro dirulaguntzak moduan), garapenerako kooperazio honako proiektua garatzeko: "Saharako Garraio eta Energia Ministerioko zuzendaritza nagusien lana indartzea".

BIGARRENA.- Diru-laguntza Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Legeak adierazitakoari jarraitu justifikatu behar da, 2025eko zezeilaren 28a baino lehen.

HIRUGARRENA.- Ebazpen honen berri udal diruzaintzari jakinaraziko zaio ordainketa egin dezan.

LAUGARRENA.- Prozeduran parte hartu daben beste lizitatzailerak guztiei ebazpen honen jakinarazpena egingo jake.

BOSGARRENA.- Ebazpen honen barri emongo da Udalbatzeak egingo dauen hurrengo bilkuran.

Amaia Lekue Mezo
AlkateaNire aurrean,
Idazkaria